

Lurralde proiektuaren arauzko gauzatzea:

Ikerketa fasea 2016ko uztailan hasi zen. Lehen hilabeteak diagnostiko partekatu baten egiteko baliatu ziren. Helburua zen lurraldeko dinamikak ulertzea, Hazparneko lurraldearen eremuan eta ipar Euskal Herriaren eremuan.

Diagnostiko horri esker, hautetsiek ondoko hamar urteetako lurralde proiektua eraiki ahal izan dute eta Antolaketa eta Garapen Iraunkorreko Proiektuaren (AGIP) moldean adierazi dute. Dokumentu sintetiko eta estrategiko horrek hautu politiko nagusiak aurkezten ditu. Gainera, hTHPren dokumentu oposagarriak sortzeko oinarria da: arau grafikoa (zonakatzea), idatzizko araua eta antolaketa eta programatze norabideak.

Oroitarazten da 2016ko abenduaren 22ko herri elkargoaren kontseiluan AGIP eztabaidatua izan zela, ondoko hiru ardatz nagusien inguruan:

- ***Biztanleen harrera kudeatzea eta lurraldearen nortasuna babestea***
- ***Ekonomia dinamikaren, laborantza jardueraren eta turismo jardueraren mantentzea eta egituratzea***
- ***Bizi, paisaia eta ingurumen kalitatearen babestea***

2017ko urtarrilaren 1ean Euskal Hirigune Elkargoa sortu ondoan, « planifikatze » eskumena hark hartu zuen. Egun, elkargoak gidatzen du hTHP, « Hazparneko Lurraldea » eremuarekin eta tokiko hautetsiekin lankidego hertsian. Baina hTHPren eremua ez da kanbiatzen. 2017an, AGIPen segidan, arauak idazteko lana hasi zen; bereziki herriarteko proiektu hau 11 herriei berezkoak zaizkien tokiko berezitasunen neurrira idazteko. Zonakatze lana 2018an luzatu zen, araudiaren eta antolaketa eta programatze norabideen idaztearekin batean. Helburua zen lurraldeko eremu desberdinen egungo eta biharko antolaketa ezaugarri nagusiak zehaztea: hiri gunek, etorkizuneko urbanizazio eremuak, laborantza eremuak, eta natura eremuak.

Pirinio Atlantikoetako Arkitektura, Hirigintza eta Ingurumena Kontseiluarekin lankidetzan, existitzen diren hiri-formen eta tokiko arkitekturaren analisi lan zorrotza egin (eraikinen bolumetria, irekiduren neurriak, etxe aitzinen koloreak, hesien goratasuna eta abar) eta etorkizuneko hTHPren araudiaren oinarriak ezarri ahal izan dira.

Hitzartzea:

hTHPren egiteko denbora guzian, hitzartzea sustatu da.

Hautetsiak, Frantziako estatuaren zerbitzuak, herritarrak, eragile ekonomikoak eta beste parte harrarazi dira.

Hitzartzea sustatzeko, hainbat gauza egin dira:

- Bilkura publikoen antolatzea
- EHEren webgunean (Hazparneko Lurraldea eremua) argibide elementuak denen eskuko ezartzea
- Lurralde eremuaren egoitzan eta Herriko Etxeetan dokumentuak denen eskuko ezartzea
- Elkargoaren aldizkarian, herrietako aldizkarietan eta tokiko prentsan artikuluak argitaratzea
- Lurralde eremuaren egoitzan eta Herriko Etxeetan usaiako irekitze tenoreetan eskuragarri den erregistro bat ezartzea, prozedura osoan zehar pertsona orok bere oharrak idazteko xedearekin.

Ondoko urratsak:

2018ko uztailan bilkura publikoak izan ziren, zonakatzeari, araudiari eta antolaketa eta programatze norabideei buruzko lehen elementuen inguruan hitz egiteko.

2019 dokumentua bururatzeko urtea izanen da. 2019ko udaberrian bilkura publikoak antolatuko dira, pikoan eman hTHP aurkezteko. Gero, 2019ko lehen urte erdian, elkargoko kontseiluak dosierra onartuko du. Ondotik, dosierraren berri emanen zaie Pertsona Publiko Partaideei, beren oharrak biltzeko. 2019 bukaera aitzin inkesta publiko bat izanen da. Azkenik, elkargoko kontseiluak hTHP behin betiko onartuko du.

Argibideak: contact.paysdehasparren@communaute-paysbasque.fr